



aranzadi
zientzia elkarte



2023



ARKEOLOGIA

Aranzadiko udako indusketak



Ikerketa arkeologikoak Aranzadi Zientzia Elkarteak udan garatzen dituen jarduera nagusietako bat dira. Koba, dolmen, herrixka, galtzada, gaztelu, ermita eta abarretan erregistratzen den informazioa ezinbestekoa da gure iragana ezagutzeko eta gure ondarea kontserbatzeko.

Aranzadiren ikerketa arkeologiko horiek bertako zuzendarien, ikasleen eta bertan inplikaturako pertsona guztien boluntariotza-lanari esker egiten dira. Era berean, udalekin eta aztarnategiak dituzten udalerrietako herritarrekin lankidetzan garatzen dira. Hori guztia dela eta, eskerrak eman nahi ditugu boluntariotza arkeologiko horrengatik; izan ere, horrela izan ezean, proiektuak ezingo lirateke burutu.

Parte hartzeko, laguntzeko eta ikasteko interesa duten pertsonen eskariari erantzuteko, informazio-liburuxka hau egin da; bertan, Aranzadik 2023an jendearentzat zabalik dituen indusketen oinarritzko informazioa aurkituko duzu.

Interesa baduzu, izena eman dezakezu ondorengo formularioan 2023eko ekainaren 01 arte.

[FORMULARIOA BETE](#)

Miaketak: Alkizako kobak

Alkiza (Gipuzkoa)



Mota: Trikuharrien miaketa arkeologikoa

Kronologia: Neolitoa - Brontze Aroa

Indusketa-datak: Maiatza

Zuzendaritza: Jesus Tapia

Hizkuntza: elebiduna (gaztelania eta euskara)

Izena emateko prezioa: doakoa (mantenua ez dago barne).

Leku-kopurua: 5

Alkizako udalerriko kobetan miaketak egingo dira. Horretarako, dagoeneko ezagunak diren barrunbe batzuk berrikusiko dira, eta oraindik aztarnategi arkeologikorik ez duten beste barrunbe batzuk aztertu eta arakatuko dira.



Idoia trikuharria

Dolemenen ibilbidea (Soraluze - Bergara - Elgoibar, Gipuzkoa)



Mota: tumuluko indusketa arkeologikoa

Kronologia: Neolitoa - Brontze Aroa

Indusketa-datak: Ekaina

Zuzendaritza: Jesus Tapia

Hizkuntza: elebiduna (gaztelania eta euskara)

Izena emateko prezioa: doakoa (mantenua ez dago barne).

Leku-kopurua: 5

Laguntzaileak: Debegesa eta Gipuzkoako Foru Aldundia

Idoia Elosua-Plazentzia megalitotegiko trikuharri bat da (Soraluze-Elgoibar-Bergara), duela 100 urte indusi zirenak. Hileta-ganberako lauza bat kontserbatzen zen, eta material gutxi batzuk baino ez ziren berreskuratu.

Gure helburua tumuluaren eta hileta-ganberaren gainazala garbitu eta zulatzea da, eta hondarrik txikiena ere berreskuratzen saiatzea. Lanak astelehenetik igandera arte egingo dira, goizez eta arratsaldez, eta hamaiketako jateko tarte bat egingo da. Indusketaren arduradunak tresnak, aseguruak eta janaria ordainduko ditu, eta boluntario bakoitzak bere ura eta laneko jantziak ekarri behar ditu.



Irulegiko herrixka gotortua

(Arangurengo Bailara, Nafarroa)



Mota: Indusketa arkeologikoa

Kronologia: Burdina Aroa eta Erromatar garaia.

Indusketa-datak: 6 tanda

1. Tanda: ekainak 12-25
2. Tanda: Ekainaren 26tik - uztailaren 9ra
3. Tanda: Uztailak 10 - 30
4. Tanda: uztailaren 3tik abuztuaren 13ra
5. Tanda: abuztuak 14 - 27
6. Tanda: abuztuaren 28tik irailaren 17ra



Laguntzaileak: Aranguren Ibarreko Udala, Nafarroako Gobernua.

Iruñerriko Baskoien Burdin Aroko herrixka gotortu baten ikerketa da, zeinaren gainean gaur egun induskatuta eta musealizatuta dagoen Behe Erdi Aroko gaztelu bat eraikia izan baitzen. Bertako jendearen eguneroko bizimodua aztertzea dugu xede, hirigintza eta defentsa-sistemarekin batera.



San Adrian - Lizarrate

Partzuergo orokorra



Mota: Indusketa arkeologikoa koban

Kronologia: Goi-paleolitoa, Erromanizazioa, Brontze Aroa, Erdi Aroa, Aro Modernoa.

Indusketa-datak: uztailaren 10 - 22ra

Zuzendaritza: Alfredo Moraza, Manu Ceberio, Jesus Tapia

Hizkuntza: elebiduna (gaztelania eta euskara)

Prezioa: doakoa (ostatua eta mantenua barne).

Leku-kopurua: 8



Brontze aroko zeramika, San Adrian.

Laguntzaileak: Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Orokorra, Zegamako, Segurako, Idiazabalgo, Asparrenako, Donemiliagako eta Zeraingo udalak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Aizkorri Parkea.

San Adrian-Lizarrate kobako aztarnategia da; bertan, goi-paleolitotik hasita XX. mende arteko material arkeologikoak jasotzen dira. Suharrizko tresnak, hezur- eta fauna-hondakinak, txanponak eta arma-zatiak eta antzinako eraikinak daude Gipuzkoa sakonean, 1000 metrotik gora dagoen koba honetan.



Munoaundi

(Azkoitia-Azpeitia, Gipuzkoa)



Mota: Indusketa arkeologikoa herrixka gotortuan

Kronologia: Bigarren Burdina Aroa

Indusketa-datak: uztailak 10-30

Zuzendaritza: Antxoka Martinez

Hizkuntza: elebiduna (gaztelania eta euskara)

Izena emateko prezioa: doakoa (ostatua eta mantenua barne)

Leku-kopurua: 20

Laguntzaileak: Azpeitiko eta Azkoitiko udalak, Gipuzkoako Foru Aldundia.

Munoaundi Bigarren Burdin Aroko herri harresitua da. Bertan daramagun ikerketa-proiektua ildo nagusiago baten barruan txertatzen da eta bideratuta dago Gipuzkoako Burdin Aroa hobeto ezagutzera. Aztarnategian bertan, orain arte egin ditugun lanek bi helburu nagusi dituzte, batetik, bertako biztanleek Burdina Aroan izandako bizimoduetan sakondu, eta bestetik, herri harresituaren defentsa-sistema hobeto ezagutu.



Brontzeko pisua, Munoaundi



Zaldua

Pirinioko erromatar galtzada
(Auritz, Aurizberri, Nafarroa)



Mota: Indusketa arkeologikoa

Kronologia: Erromatar garaia I-IV

Indusketa-datak: uztailak 10-23

Zuzendaritza: Oihane Mendizabal -Sandonis

Hizkuntza: Elebiduna (euskara eta gaztelania)

Izena emateko prezioa: doakoa (ostatua eta mantenua barne)

Leku-kopurua: 5



Laguntzaileak: Nafarroako Gobernua, Euskokultur Fundazioa, Luzaideko, Orreagako, Auritzeko, Erroibarko, Artzibarko, Agoizko, Longidako udalak, Aurizberriko kontzejua.

Pirinioak alderik alde zeharkatzen dituen ITER XXXIV galtzadan kokatutako erromatar garaiko hirigunea da Zaldua eta 2017tik gaurdaino termen eraikina industen ari da bertan. Urtero antolatutako udako indusketa kanpainaren helburu nagusiak honako hauek dira: kokaleku horri buruz informazioa eskuratzea, aztarnategia gizartean ezagutaraztea eta kanpainan parte hartzen duten partaideei erregistro arkeologikoan trebakuntza eskaintzea.



Koskobilo

(Olazti, Nafarroa)



Mota: Indusketa arkeologikoa kobazuloan

Kronologia: Paleolitoa eta Neolitoa

Indusketa-datak: Uztailak 3-23 (kanpaina osora apuntatzen direnek lehentasuna izango dute)

Zuzendaritza: Daniel Ruiz Gonzalez

Hizkuntza: elebiduna (gaztelania eta euskara)

Izena emateko prezioa: doakoa (mantenua barne)

Leku-kopurua: 5

Laguntzaileak: Olaztiko Udala

Koskobilo harrobiaren inguruan garatzen den ikerketa-proiektua. Hainbat eremutan egindako eskuhartzeko arkeologikoei esker, Historiaurrean zehar (Erdi Paleolitoa, Goi Paleolitoa, Azken Paleolitoa eta Neolitoa) gunea okupatu zuten hainbat giza-talderen aztarnak topatu ditugu. Kanpaina honetan, Koskobilo II kobazuloaren indusketarekin jarraituko dugu, bai hedaduran eta baita sakoneran ere. Bertan, aurreko kanpainetan, haitzuloa Neolito garaian ehorzketak egiteko toki gisa erabiltzen zenaren hainbat aztarna material berreskuratu ditugu (giza-hezurak, suharri tresnak, lurrontzi pusketak, etab.).



Babio

(Izoria, Araba)



Mota: Herrixka harresitua.

Kronologia: Burdin Aroa

Indusketa-datak: Uztailak 31- Abuztuak 12.

Zuzendaritza: Jon Obaldia.

Hizkuntza: Elebiduna (mantenua barne).

Izen-emateko prezioa:

Leku-kopurua: 10

Laguntzaileak: Aiarako udala, Izoriako Kontzejua eta Aztarna Elkarte Etnografikoa

Babioko herrixka gotortua Izorian dago (Araba), 1981ean aurkitu zen eta 10 hektareako herri gotortua da. Azken kanpainetan egiten ari diren lanen helburua etxebizitzaren espazioa mugatzea eta defentsa-sistema aztertzea da.



Resa

(Andosilla, Nafarroa)



Mota: Induketa arkeologikoa.

Indusketa-datak: Abuztuaren 1-14

Zuzendaritza: Josu Narbarte.

Hizkuntza: Elebiduna.

Izen-emateko prezioa: Doakoa.

Lan egingo den aztarnategi arkeologikoa Ebro ibaiaren ertzean dago, Resa izeneko eremuan, eta eremu hori Andosillako udalerriri dagokio. Lan arkeologikoa egingo da Erdi Aroko egitura bat induskatzeko. Egitura hori arkeologia- eta antropologia-intereseko hainbat gunek inguratzen dute, eta aurrez hainbat lan egin dira bertan.



Miaketak: karakate-kurutzebakar

Dolemenen ibilbidea (Soraluze - Bergara - Elgoibar, Gipuzkoa)



Mota: Trikuharrien miaketa arkeologikoa

Kronologia: Neolitoa - Brontze Aroa

Indusketa-datak: Abuztuak 1-16

Zuzendaritza: Jesus Tapia

Hizkuntza: elebiduna (gaztelania eta euskara)

Izena emateko prezioa: doakoa (mantenua ez dago barne).

Leku-kopurua: 5

Laguntzaileak: Debegesa eta Gipuzkoako Foru Aldundia

Helburua da aztarnategi arkeologiko berriak aurkitzea Elosua-Plazentziako estazio megalitikoaren inguruan (habitat-lekuak eta hileta-egiturak). Lurrazaleko prospekzioak zein laginketa eta zundaketa arkeologikoak egingo dira.



Andatza II eta III

(Usurbil - Donostia/San Sebastián, Gipuzkoa)



Mota: Indusketa arkeologiakoa.

Kronologia: Neolitoa - Burdina Aroa

Indusketa-datak: Abuztuak 7-19

Zuzendaritza: Manu Ceberio, Izaro Quevedo

Hizkuntza: elebiduna (gaztelania eta euskara)

Izena emateko prezioa: doakoa (mantenua barne)

Leku-kopurua: 5

Laguntzaileak: Usurbilgo Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia

Andatza mendia ikertzeko proiektu honetan bi aztarnategi desberdinak industen ari dira: Andatza III Brontze Aroko monumentu megalitikoa eta Irigain izeneko erromatar garaiko bizitokia.



Basagain

(Anoeta, Gipuzkoa)



Mota: Indusketa arkeologikoa herrixka gotortuan

Kronologia: Burdina Aroa

Indusketa-datak: irailak 5 - 23.

Zuzendaritza: Xabier Peñalver, Eloisa Uribarri

Hizkuntza: elebiduna (gaztelania eta euskara)

Izena emateko prezioa: doakoa (ostatua eta mantenua barne)

Leku-kopurua: 15



Eskuko baten zatia, Basagain

Laguntzaileak: Anoetako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia

Burdina Aroko herrixka Anoetako (Gipuzkoa) Basagain mendian dago, eta duela 20 urte baino gehiagotik hona egiaztatu da bertan zegoen merkataritza-jarduera, burdinazko, zeramikazko tresnak eta beira-aleak agertu zirelako zenbait puntutan. Euskal Herrian arkeologikoki gotortutako herrixka aktiboenetako bat da.



Irigain

(Usurbil, Gipuzkoa)



Mota: Aire zabaleko aztarnategia.

Kronologia: erromatar garaia

Jarduera-datak: irailean

Zuzendaritza: Manu Ceberio, Izaro Quevedo

Hizkuntza: Elebitan (gaztelera y euskara)

Izena emateko prezioa: doakoa (bazkariak barne).

Leku kopurua: 5

Laguntzaileak: Usurbilgo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia.



Sagastietako lepua III

(Hernani, Gipuzkoa)



Mota: Monumentu megalitikoak

Kronologia: Neolito-Brontze Aroa

Jarduera-datak: urria

Zuzendaritza: Manu Ceberio eta Jesús Tapia

Hizkuntzak: euskara

Izena emateko prezioa: doakoa (bazkaria barne)

Leku-kopurua: 5

Laguntzaileak: Hernani, Ereñozuko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

Auzolana: Pirinioetako erromatar galtzadaren mantenua

(Artzibar, Erroibar, Nafarroa)



Mota: Erromatar bidearen garbiketa eta mantenua

Kronologia: Erromatar garaia I-IV d.C.

Indusketa-datak: uztailaren 24tik 30era

Zuzendaritza: Oihane Mendizabal Sandonis

Hizkuntza: elebiduna (euskara eta gaztelania)

Izena emateko prezioa: doakoa (ostatua ez dago barne).

Leku-kopurua: 10

Laguntzaileak: Nafarroako Gobernua, Euskokultur Fundazioa, Luzaideko, Orreagako, Auritzeko, Erroibarko, Artzibarko, Agoizko, Longidako udalak, Aurizberriko kontzejua.

Auzolan honetan esku hartuko den ibilbidea erromatar galtzadaren zati bati dagokio, hain zuzen ere, oinez egiteko prestatuta dagoena Auritzetik Zazperainokoa (Artzibar). Ibilbide honek Caesaraugusta-ko (Zaragoza) eta Burdigala-ko (Bordele) hiriak lotuko zituen Ibañetako pasabidetik barna. Haren eraikuntza K.a. I. mendearen inguruan egin zen, 6 eta 8 metro arteko zabalerarekin eta, bide osoan ez du %6ko desnibela gainditzen.

Auzolana: Amaiur gazteluko aztarnak zaintzen eta herriko etnografia lantzen

(Amaiur, Nafarroa)



Mota: Aztarnategiko mantentze lanak

Kronologia: Erdi Aroa. Aro Berria

Indusketa-datak: Abuztuaren 1etik 13ra

Zuzendaritza: Juantxo Agirre-Mauleon

Hizkuntza: Euskara

Izena emateko prezioa: 10 euro / Eguna

Leku-kopurua: 30

Azken urteetako dinamikari jarraiki, Amaiurko gazteluko aztarnategian mantentze lanak egingo dira auzolanean. Honez gain, herriko objektu etnografikoen gaineko lanak burutuko dira.

Auzolana: Zalurribarko San Salvatore eliza

(Agoiz, Nafarroa)



Mota: Aztarnategiko kontsolidazio lanak

Kronologia: Erdi Aroa. Aro Berria

Indusketa-datak: Iraileko asteburu bat (aurrerago zehaztuko da)

Zuzendaritza: Josu Narbarte

Hizkuntza: elebiduna (gaztelania eta euskara)

Izena emateko prezioa: dohainik

Leku-kopurua: 10 (Agoizko herritarrek HIDEA elkartearen bidez eman beharko dute izena).

Azken urteetako dinamikari jarraiki, Zalurribarko San Salvatore ermitako aztarnategian agiturak sendotzeko lanak egingo dira auzolanean.

Auzolana: Adunako hezurtegiaren garbiketa

(Aduna, Gipuzkoa)



Mota: Adunako hezurtegiaren eta Belabietako egitura defentsibo baten garbiketa.

Kronologia: Aro Garaikidea

Indusketa datak: Uztailaren 1tik 7ra

Zuzendaritza: Manex Arrastoa

Hizkuntza: Euskara

Izena emateko prezioa: doakoa (hamaiketako eta bazkaria barne)

Leku kopurua: 8 (Aiztondo bailarako gazteei zuzendua)

Laguntzaileak: Aduna eta Amasa-Villabonako udalak, Gipuzkoako Foru Aldundia.

Auzolan honetan 2021ean Adunako hezurtegiaren hasitako garbiketari segida emango zaio. Era berean, Belabietan inguruan aurkitzen diren lubakietako bat garbituko da.



laguntzaileak

instituciones y empresas



Udalak:



Aduna



Agoiz



Anoeta



Aranguren



Artzibar



Auritz



AZKOITIA
Udala



azpeitia



Baztan



Erroibar



Gaztelu Elkartea



Hernaniko
Udala




Iza



AYUNTAMIENTO
DE OLAZAGUTIA
1900
(NAFARROA)



Longida



Luzaide



Usturbil



Villabona



Soraluze




Zegama

Zerbitzu arkeologikoak

- Indusketak, zundaketak eta prospekzio arkeologikoak
- Obren kontrol arkeologikoa (lur mugimenduak, sastrakak kentzea...)
- Azterlan historiko-arkeologikoak eta dokumentalak
- Ondasun higiezinaren eta higigarrien azterlana eta balorazioa
- Prospekzio geofisikoak
- Laser bidezko eskaneatzea eta aztarnategien topografiatzea
- Aztarnategien aireko argazkia
- Material arkeologikoen azterlan espezializatua (zeramika, fauna, litikoa)
- Azterketa antropologikoak
- Aztarnategien eta material arkeologikoen inbentarioa eta katalogazioa
- Legezko aholkularitza - hirigintza-plangintzako arauak
- Aholkularitza historikoa
- Itzulpen espezializatuak
- Argitalpenak
- Ondare-elementuen musealizazioa eta seinalizazioa
- Aztarnategi arkeologikoak finkatzea eta lehengoratzeta
- Publikoari oro har eta eskolatuari zuzendutako tailer didaktikoak
- Erakusketen antolamendua
- Ondareari buruzko unitate didaktikoak eta e-learning ikastaroak
- Auzolandegiak eta boluntariotza-lanak antolatzea

Informazio gehiago: www.aranzadi.eus

Harremanetarako: zuzendaritza@aranzadi.eus



aranzadi
zientzia elkarte

Zorroagagaina 11
20014 Donostia / San Sebastián (Gipuzkoa)
Tel.: 943 466 142
www.aranzadi.eus